

## **Bilbo postindustrialaren bigarren eraldaketa**

*Pedro Zuberogoitia*

*Aitor Zuberogoitia*

*(Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia liburuaren egileak)*

Berba ugari egin izan da bere iragan industrialaren hondarretatik jagi eta zerbitzu-uri indartsu bihurtzen jakin izan daberen Bilboren eraldaketa harri-garriaz; ez horrenbeste, aldiz, uriaren soziologian dezenteko mudantza eragiten ari dan eraldaketa linguistikoaz. Eraldaketa horri erreparatuko deutso-gu artikulu honetan, euskerak hirian XX. mendean zehar egin daberen ibilbidea abiapuntu modura hartuta.

### **1. XIX. mendearen amaiera. Azkue eta Arana: gizon bi, norabide bi**

Egin dagigun atzera ehun eta hogeita hamar urte eta jar gaitezen orduko Bilbora begira. Bigarren gerra karlista amaitu barri zala, eraldaketa sakonak astintzen eben etenik barik hazten ari zan uria. Arlo politikoari jagokonez, foruen galerak euskal lurraldeen erregimen bereziaren amaiera ekarri eban. Negoziazio luzeen ostean Kontzertu Ekonomikoa gorde ahal izan zan, baina subiranotasunaren galera-sentipena gogor iltzatu zan garaiko bilbotarren gogoan. Esparru ekonomikoan gertatzen ari ziran aldaketek, barriz, uriaren itxura ez ezik, biztanleriaren izaera eta jatorria be errotik eraldatu ebezan. Industria iraultza bete-betea sartu zan eta Ibaizabalen bi ertzetan altxatutako lantegi eta ontziolak Espainiako bazter guztietatik heldutako etorkinez bete ziran. Uriaren egitura bera be moldatu behar izan zan giza-uholdera eta errebal guztietan eraiki ziran etxe barriak. Zazpikaleetara eta Areatza ingurura mugatuta, Bilbok gutiziaz begiratzen eutsen Begoña, Deustu eta Abandoko lur zabalei. Argi egoan albo-herrietako baserri-giroak ez ebala luzaroan iraungo...

Aldaketok ez ziran oharkabeen pasatu, ez horixe. 1880ko hamarkadan euskal izaeraren galera salatzen eben ahotsak entzuten hasi ziran handik eta hemendik. Hasieran era nahasi samar batean, baina urteek aurrera egin ahala gero eta modu argiagoan. Funtsean, mezua honako hau zan: “Geurearen aldeko erreakzioa eragiten ez badogu, akabo geure kultura, bizimodua eta hizkuntza”. Mugimendu horren buruzagitzan Sagarminaga eta beste foruzale porrokatu batzuk egozan; *Euskalerrria Elkarteko* kideak, hain zuzen be. Euren eskaera tematiei esker etorri zan 1888an euskerak Bilbon eta Euskal Herri osoan lortu eban lehenengo pisuzko postua: Bizkaiko Aldundiak Bilboko institutuan sortu eban Euskera Katedra. Une horretan jarriko dogu, bada, geure kontakizunaren abiapuntua.

Jakina danez, Resurreccion Maria Azkuek lortu eban katedra, Unamuno, Arana eta beste batzuen aurka lehiatu eta gero. Lehenengo pausoa emonda eukan, baina bide luze-luzea ibili beharra egoan, Bilbon euskeraren egoera kezkagarria zalako edonondik begiratuta be: nahiz eta milaka hitzun izan (Azkuek, oso baikor, lautik bat euskalduna zala zinoen), bizitza ofizialetik kanpo egoan euskera, eta bere gizarte-prestigioa hutsaren hurrengoan zan. Berba batean, debekatuta egoan administrazioan eta hezkuntzan, eta jendeak baserri-munduko arloteekin eta neskameekaz lotzen eban.

Azkue honen guzti honen jakitun zan. Egin beharrekoak be argi eukazan abade gazteak, eta berehala ekin eutson eskolak emoteari, eta baita beste jarduera paralelo batzuei be. Helburua argia zan: euskeraz funtzionatuko eban *intelligentsia* osatzea. Horretarako, beste gauza batzuen artean, ezinbestekoa zan idatzizko komunikabide bat. Euskeraren alde dirua emoteko prest egozan burgesiako kide bakanekin berba eginda (Tomas Epalza, Ramon Sota eta besteren bat), lortu ebazan txanpon batzuk eta 1897an *Euskalzale* aldizkaria kaleratu eban. Dirurik ezak eta Madrilgo gobernuaren oztupoek astekaria zarratzea eragin eben arren, handik gutxira zabalkunde handiagoa eukan eta eduki gehiago jorratzen ebazan *Ibaizabal* aldizkariagaz bueltatu zan Azkue. Honek be ez eban askorik iraun, baina ordurako hazia uriburuko lau bazterretan zabalduta egoan. Beste alde batetik, gramatikaren esparrua be landu eban lekeitiar bilbotartuak: 1891n *Euskal Izkindea* gramatika argitaratu eban, neurri handi batean behar gorriak akuilatuta, eskolak emoteko materiala sortu beharra eukan-eta.

Sabino Aranak, bitartean, EAJ eratu eban eta ideario abertzalea lau hai-zeetara zabaltzen hasi zan. Honek be Madrilgo autoritateagaz egin eban

topo eta buruan eukazan proiektuen erdiak be ezin izan ebazan gauzatu. Batzuk bai ordea: beste ekimen batzuen artean *Baserritarra* eta *Aberria* (*Aberrija* geroago) aldizkariak kaleratu ebazan. Propaganda politikorako tresnak ziran, funtsean, eta euskerak bertan hartzen eban lekua oso txikia zan. Hau ez da inondik be harritzekoa, Aranaren oinarria ez zalako hizkuntza, aberria eta arraza baino. Hori dala-eta, talka egin eben behin baino gehiagotan Aranak eta Azkuek, baina, era berean, alkar miresten eben, nork bere esparruan eukan autoritateagaitik (batak politikan, besteak kulturean).

## **2. 1910eko eta 1930eko hamarkadak: esparruak irabazten**

Mende barriagaz batera bi gidari handiak desagertu egin ziran lehenengo lerrotik. Arana hil egin zan 1903an eta Azkuek, barriz, Europarako bidea hartu eban musika ikasketetan sakontzeko asmoz. Katedraren ardura Ebaristo Bustintza *Kirikiñoren* gain utzita, Frantzia eta Alemanian emon ebazan hurrengo bost urteak. Tarte horretan gauza asko mugitu ziran Bilbon. Bitxienetako bat honako hau izan zan: Azkuegaz institutuan euskaldundutako dozenaka ikaslek Aranaren bidea hartu eben eta 1910ean Eusko Gaztedijaren (EAJko gazteak) barruan kokatzen zan Euskeltzale Bazkuna sortu eben. Gerrak euren jarduna kolpean moztu izan ez baleu, beraz, aurtan ehun urte beteko ebazan alkarte horrek.

Bazkunakoak Eusko Gaztedijak Bidebarrieta kalean eukan egoitzan biltzen ziran eta euren jarduna gaur egungo euskera elkarte batenaren oso antzekoa zan: euskera esparru barrietan sartu eben (gaztetxoen taldea, euskera eskolak), kaleko jardueri bultzada emon eutsen (kantu birak, jaialdiak), gramatikak argitaratu ebezan, aldizkari bat atara eben (*Euzko-Deya*)... Egia da hauteskundeak heltzen ziranean alderdiarentzat botoak biltzea zala lehentasuna; egia da baita be Sabino besteko muturrekoak zirala hizkuntzaren garbizalekeriari jagokonez. Baina, era berean, euskera zan euren jardunaren ardatza eta muina. Horretan, zalantzarik ez, Azkueren eskola jarraitzen eben eta beste jeltzaleengandik bereizi egiten ziran. Baina utzi dagigun kalea tarte batez eta ikus dagigun zertan egoan euskerari pisu eta itzal akademikoa emoteko asmoa. Izan be, mende hasieran bi ildo horreetan (erabiler-esparru barriak eta kultura-estatusa) egin eban aurrera gure hizkuntzak.

Azkue Alemaniatik bueltatu zuan garairako bistakoa zuan euskera katedra bakarria txiki geratzen ari zala. Urtetik urtera jende gehiago hurreratzen zuan eta neskek be bide horretatik sartzeko gogoia erakusten eben. Horrela bada, 1911n Azkuek mutilen taldea hartu eban eta Kirikiñok, barriz, neskentzat sortu zuan katedra barria. Aurrerapauso horregaz ez zuan moteldu Azkueren gogoia, ez horixe. Beste batzuekaz batera, Euskeraren Akademiaren aldeko lan isilari ekin eutson, eta, helburu hori lortzeko, akademiaren garrantziaz jabetuarazo ebazan Euskal Herriko aldundietako politikariak. Bazekien hizkuntza bateratu eta arautu barik oso gaitza izango zala aurrera egitea eta, horregaitik, ez eban bakerik izan 1919an Euskaltzaindia sortu zuan arte. Bertako buru izendatu eben (karguari eutsi eutson 1951n hil zuan arte) eta Akademiaren egoitza be Bilbon finkatu zuan. Bizkaiko uriburua, Euskal Herriko uririk handiena, euskeraren modernizazioa eta hedapena zuzentzen ebilen.

Bide horretan, ordea, ez zuan falta izan oztopoak jarri ebanik. 1923an Primo de Rivera jeneralak estatu-kolpea jo eban eta ondorioak berehala nabaritu ziran. Solokoetxeko Maistren Eskolan 1918an sortu zuan hirugarren katedra eta Barakaldokoa (urte berekoa), esate baterako, soldata barik itxi ebazan. *Euzkal-Deya* aldizkaria eta *Euzkadi* egunkariko euskerazko atala be (Kirikiñok egunero argitaratzen eban *Egunekoa* zutabea) galarazi ebazan, eta Euzko Gaztedijako egoitza, barriz, itxi egin eben. Hainbeste nekez martxan jarritakoak ezkutuan gorde behar izan ziran tarte batean...

Ilunaldiaren ostean, baina, izotz ondoko eguzkia etorri zuan. Hamarkada amaitu zanerako Bazkunakoak beharrean ebiltzan barriri ere. 1931ko udaberrian, Espainian Errepublikak aldarrikatu baino lehenago, alkartea aurreko hamarkadan baino martxa biziagoan ebilen. Belaunaldi barri bat sartu zuan euskeraren aldeko dinamikan eta mugimenduak berehala nabaritu eban odol barria: Bidebarrietako gelek gainezka egiten eben goizetik gauera arte luzatzen ziran euskera eskoletara hurreratutako bilbotarrekaz (izen hori ez baeukan be, ha, azken batean, euskaltegi bat zuan), aldizkari barri bat eratu eben (*Euzko*), *Metodo gradual para aprender el euzkera* liburukiaren 5.000 aleko botaldia egin eben...

Hori gitxi balitz, une horretan jaio ziran Bilbon Euskal Herriko lehenengo ikastolak. Bata Zazpikaleetan kokatu zuan, Belostikalen hain zuzen, eta bestea, Errotatxueta, Kale Nagusian, gaur egun parkea dagoan inguru horretan. Biak ala biak puntako pedagogia-metodoak erabiltzen ebezan eta, baliabideak urriak baziran be, gelen antolaketa oso modernoa zuan. Euskeraren

aldeko olatuak, gainera, eragina izan eban gainontzeko eskoletan be eta eskola-orduak amaitu eta gero euskera-eskolak emoten hasi ziran hainbat udal-eskolatan (Erribera kaleko Mugikan, esate baterako).

Literaturaren munduan be haize barriak somatzen ziran. Bilboko Verdes Atxirika etxeak makina bat liburu argitaratu ebazan 1930eko hamarkadan. Hona hemen horreetako batzuk: Lauaxetaren *Bide barridak*, Xabier Lizardiren *Biotz begietan*, Tormesko *itsu-mutilla* (Orixek euskeratua), Oscar Wilden *Ipuñak* (Joseba Altunak euskeratua), eta beste asko. Horreek danok apainduta, dotore asko agertzen zan Posta kaleko Verdes liburu-denda eta inprimategiaren erakusleihoa.

Onenean, baina, eskumako militarrek matxinatu egin ziran eta gerra piztu zan bazterretan. Giro latz hartan be, Euskal Herrian inoiz atara dan euskera hutsezko lehenengo egunkaria (*Eguna*) kaleratu zan Bilbon 1937ko Urtebarri egunean. *Eguna*-ren ibilbidea bagilean amaitu zan, Francoren gudarosteak Bilbo menpean hartu ebanean. Gure urian geratu ziren euskaldun bakan eta bildurtuei, horrenbestez, ezkutatzeko eta isiltzeko sasoia heldu jaken.

### **3. 1940-1980: ezkututik lur azalera**

1936ko gerrak eten dramatikoa ekarri eban, ondo baino hobeto dakigu hori. Gerraostean, Iñaki Irigoienek ondo dinoen moduan, lehenengo beharra beldurra kentzea izan zan, euskeraz berbeteari jendeak eutson beldurra kentzea. Lan isila egin behar izan zan horretarako; lan isila... eta bakarkakoa, oraindino ez egoalako ezelako plataforma edota talde antolatutik eratzeko aukerarik.

Horregaitik hain zuzen, banako batzuen jardunak markatu eban euskera-ren suspertzea Bilbon gerraosteko lehenengo urte haretan; horri jagokonez, Xabier Gereñoren izena aipatu behar da lehenengo eta behin, ezinbestean. 1948an Concha Jenerala kaleko hizkuntza-akademia batean euskera-eskolak sortuz ekin eutson euskeraren aldeko aktibismoari (Larrinagako kartzelan hamabost egun emon behar izan ebazan hori zala-eta), eta harrezkero ez zan geldirik geratu: izan euskera-eskolak, izan CINSA liburu eta disko argitaldaria, izan Festivals de la Canción Vasca jaialdien antolaketa, izan Euskaltzaindian zein *Anaitasuna*-n eginiko beharra... Beti legea baino apur bat harago joaten asmatzen eban, modu horretan euskerarentzat esparru barriak irabazita.

Banakoak aitatzen hasita, ezin Xabier Peña izentau barik itxi. Bera izan zan 1948an Concha Jenerala kaleko akademian euskera-eskolak emoten hasi zana, eta ondoren Euskaltzaindiaren Erribera kaleko egoitzan jardun eban euskera-irakasle moduan (100 ikasle inguru izaten ebezan urtero). 1958an, horrez gain, *Euskal irakasbide laburra* eskuliburua atara eban, eta baita lan horren milaka ale saldu be. Gogoratzekoa da, era berean, zelan joan ohi zan egunero-egunero Bilboko Herri Irratira errosarioa zuzenean irakurtzera (balio sinboliko handiko ekintza garai hartan).

Dana dala, banakoen artean Gabriel Arestiren irudia gailendu zan beste danen gainetik. Izan be, molde guztiak apurtu ebazan Gabrielek: euskaldun hiritarra, gorbataduna, fedebakoa, komunista... Molde guztiak apurtu ebazan, bai, eta baita hamaikatxo bide urratu be: poesia, euskararen batasuna,<sup>1</sup> hiztegitintza, antzerkia (Kriselu talde bilbotarragaz batik bat), kantugintza...

Trumoi-gizona zan Aresti, eta nortasun handikoa zan baita beragaz eta Antonio Maria Labaienegaz batera 1953an Santurtziko portura Hego Ameriketatik bueltan etorren Orixeri ongietorria egitera joaniko gizona: Alfontso Irigoien. Labaienek berak jarri eban Irigoien Arestigaz hartu-emonetan.<sup>2</sup> Arestigaz ez ezik, Azkuegaz be hartu-emon handia euki eban Irigoienek, eta harek markaturiko bidea jarraitu eban Euskaltzaindian zein euskeraren aldeko beste makina bat ekitaldi eta mugimendutan. Ez zan izan bere hautua aldarrika ibiltzea, ezpada posibilismoaren bidetik abiatzea, batzuekaz zein besteekaz tratuak eginda proiektuak aurrera ataratzea eta egiturak sendotzea. Hautu horri zor jako, besteak beste, Euskaltzaindiaren frankismopeko pizkundea, gerraosteko Bilboko lehenengo ikastolen sorrera edota 1950eko hamarkada amaierako Bizkaiko bertsolari-txapelketen loraldia.

Behin 1950eko hamarkada onenak emoten hasita egoanean, beraz, egitura eta taldeen eraketari bide emon eutson banakoen sasoiak. Euskaltzain-

<sup>1</sup> Koldo Mitxelena zioen 1959an plazaratutako *Maldan behera* lan sarituan presente egoala, oso-osorik, Arantzazun bederatzi urte geroago finkatutako euskara batua.

<sup>2</sup> Angel Zelaietak emoten dau anekdota horren barri berak eginiko Gabriel Arestiren biografian (Zarautz: Susa, 2000). Lan horretan Irigoienek honeek berbak irakur daitekez: “*Sarri etortzen zitzaidan —zioskun Alfontso Irigoienek— Euskaltzaindira. Ene memoria abulak buts egiten ez badit, soldadiskea amaitzen zegoen garaia zen. Nik uste nik asko lagundu niola —behar bada inork baino gehiago— klasikoak ezagutzen, eta, bereziki, ber-klasikoen liburu zahar guztiak arakatu genituen. Sarritan, etxera eramaten zituen, eta bueltan luzaroan komentatzen genituen*”.

dia (hainbat kultur talde alkartu ohi ziren Akademiaren Erribera kaleko egoitzan) eta ikastolak aipatu barri doguz, baina garai horretakoak edo apur bat geroagokoak dira, era berean, *Anaitasuna* eta *Kili-Kili* aldizkaria, San Anton elizaren inguruan sorturiko dinamika (aipamen berezia merezi dabe Klaudio Gallastegik eta Jose Antonio Retolazak), txistulari eta dantzari taldeak, alfabetatze-euskalduntze uholdea bera...

Gauza danak kontatzen hasita, garai hartan izaniko ahari-topeka mingarri samar bat be derrigor aitatu beharra dago: bizkaierazaleen eta euskara batu sortu barriaren aldekoen arteko ahari-topeka, hain zuzen be. Batuaren aldekoek sutsu defenditu eben estandar barria, izan *Anaitasuna*-n, izan gau-eskoletan, izan Bilbon bertan egin ziran hiztegi zein testu-liburuetan (azken horreen artean azpimarratzekoa da Iker taldeak osaturiko *Saioka* liburu-sorta), izan Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegian...

Bizkaierazaleek, barriz, euren egitura propioak eregi ebezan: Euskaltzaindiaren eredia onartzen ez eban Euskerazaleak alkartea eta beronen akademia (Euskerazaintza), *Kili-Kili* eta *Agur* aldizkariak, Bizkaiko Elizaren sermoigintza, Kirikiño eta Begoñazpi ikastolak, Labayru alkartea eta beronen Udako Euskal Ikastaroak...

Batzuek (hasieran behinik behin) batua ukatu ebelako eta besteek estandarra (lehen momentuetan behintzat) bizkaiera-usaineko formatatik larregi aldentuarazo ebelako, kontua da komeni baino denpora gehiago egon zira-la alde biak alkarri lepoa emonda, eta, hori dala-eta, energia dezente alperrik galtzeaz gain, hurrengo urteetan Bizkaiko euskalgintzak ez ebalala emon emon eikean dana.

#### **4. 1980-2010: diskurtso autonomoaren bila**

1970eko hamarkada amaieran eta 1980koaren hasieran kultura euskaldun hiritarra erne zan Botxoan: ordukoak dira Oskorriren lehen garaietako kantua, Santutxuko bertso-eskolakoen jarduna, Maskaradakoen obra indarrez beteak, Pott Bandakoen ibilerak... Zein testuingurutan sortu zan, baina, kultura euskaldun hiritar hori? Oso kinka politiko polarizatuan: bai Eusko Jaur-larritza, bai EAEko erakunde-egituraketa barri guztia indarrean jarri barria zan, eta euskal gizartearen zati esanguratsu batek auzitan jarri eban egitura-tze-prozesu hori. Horrek danorrek euskera munduan be euki eban eraginik:

euskeraren aldeko gizarte-mugimenduan oinarrituriko AEK egoan batetik (1980ko hamarkadan jo eban goia Bilbon, 5.000 ikasle eta 14 zentroga), eta Jaurlaritzak sorturiko HABE bestetik; gizarte-ekimenetik sorturiko egunkari-proiektua batetik, eta erakundeek diseinaturikoa bestetik; euskeraren aldeko ekimen instituzionalak batetik, eta gizarte zibilarenak bestetik... eta horrela *ad infinitum*.

Hamarkada amaiera aldera, ordea, egoera hori desblokeatzen lagundu eban Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetx*-ek proposaturiko paradigma teoriakoak: alderdikeriak bazterrean itxi eta hizkuntza diskurtsoaren erdigunean kokatzeaz ziharduen paradigma horrek, eta motibazioa, sinergiak eta elkarlana aipatzen ebazan... Hau irakurtzen diharduenak ondo baino hobeto eza-gutuko dauen kontzeptu-sorta hori danori, azken batean.

Kontua da diskurtso horrek uriko hainbat talde inspiratu ebazala, eta beronen bidetik Kafe Antzokia sortu ebala Zenbat Gara alkarteak, Soziolinguistika jardunaldiak antolatu ebazala Udalak zenbait urtetan, bertako Euskara Zerbitzuak Bilbo Euskalduntzen ekimena abiarazo ebala gizarte-taldeenak batera, hainbat euskal txoko be sortu zirala, AEK-k Kalderapeko gunea eratu ebala, euskara alkarteak sortu zirala Mahatserrian, Deustun, Zorrotzan, Zazpikaleetan, Bilbo Zaharrean... Ekimen horreetako askok indarrean jarraitzen dabe oraindino, beste batzuk apaldu edo desagertu egin ziran, eta fenomeno barriak be azaleratu dira; kontuak kontu, gauza batean behintzat ez dago zalantzarik: honen guztionen ondorioz asko aldatu da uriko paisaia linguistikoa azken 30 urteotan.

## 5. Aurrera begira jarrita: Bilbo, euskeraren uri buruzagi?

Azken 20-30 urteotan uriko paisaia linguistikoa aldatu egin da, bai; helduleku nahikotxo daukagu esanikoaren egiazkotasuna frogatzeko:

- **Datu soziolinguistikoak.** Eustat-en 2006ko datuek dinoenez, inoizko euskaldun kopururik handiena dauka uriak: bertako 343.072 biztanleak kontuan hartuta, % 24,3 dira euskaldun (83.354 lagun) eta % 24 euskaldun pasibo (82.339 lagun). Ez dago Euskal Herrian horrenbeste euskaldun daukan beste gunerik.

- **Alkarte eta erakundeen jarduna.** Asko dira urian euskeraren inguruan beharrean ari diranak: Zenbat Gara, Asapala, Berbaizu, Bilbo Zaharra, Mendebalde, Labayru, Euskerazaleak, AEK, lau berbalagun proiektu, Udalaren ekimenak (Harrapazank, Ikusi eta Ikasi...), Euskararen Etxea...
- **Hezkuntza.** Eredu eleanitzek zer ekarriko daben zain gagozan honetan, D eredua erabat gailendu da orain artean Bilbon, eta elebidun aktibo zein pasiboen gorakada etenbakoa bermatu dau horrek.
- **Hedabideak eta plataforma barriak.** Gero eta gehiago dira Botxoan euskera hutsean diharduenak: Hamaika TB, Ibaizabal TB, Bilbo Hiria Irratia, Bizkaia Irratia, *Prest* eta *Berton* kazetak, BIZKAIE! aldizkari elektronikoa, Bilboko Udalak atunduriko webgunea,<sup>3</sup> Azkue Fundazioaren plataforma<sup>4</sup>...
- **Ahari-topekarik ez.** Garai bateko kontuak ahaztuta, gaur egun inork ez dau auzitan ipinten euskara batua, eta euskalkia bera be behar dan moduan baloratzen da. Indar metaketa eta ekimen bateratuak erraztu egiten ditu horrek.

Jauzi kualitatibo bat emoteko moduko oinarri sendo batzuk (garai batean horrenbeste aipatzen ziran *baldintza objektiboak*) egon badagoz, beraz. Horreek gogoan izanik, batetik, eta Botxoaren dinamismoa, lidergo-gaitasuna eta trakzio-indarra aintzat hartuta, bestetik, Bilbo postindustrialaren bigarren eraldaketan sakondu eta gure uri hau *euskeraren uri buruzagi* bihurtzeko abagune egokia da, horrenbestez, honako hau.

---

<sup>3</sup> [www.bilbaeuskaraz.com](http://www.bilbaeuskaraz.com)

<sup>4</sup> <http://www.azkuefundazioa.org>

